Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2025eko otsailaren 13a, osteguna — 29 — Jueves, a 13 de febrero de 2025

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## BERGARAKO UDALA

*Obra eta Zerbitzuetako teknikari lanpostua jabetzan betetzeko hautaketa-prozesuaren oinarrien akats zuzenketa.*

2024ko abenduaren 12an emandako dekretu bitartez Bergarako udaleko alkateak erabaki du lehiaketa-oposizio bidez Udaleko Obra eta Zerbitzuetako teknikari lanpostua jabetzan betetzeko deialdia egitea eta hau arautzen duten oinarriak onartzea (espediente zenbakia: 2024LAAU0024).

2025eko urtarrilaren 16ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren oinarriak eta bertan, bederatzigarren oinarrian, akatsak sumatu direnez honen bidez zuzentzen dira, honela osatuko delarik bederatzigarren oinarri hori:

Bederatzigarrena. Merezimenduen fasea (lehiaketa).

Azterketen fasea (oposizioa) gainditzen duten hautagaiak merezimenduen fasera (lehiaketa) igaroko dira.

Lehiaketaldia fase honetan guztira gehienez ere 30 puntu lortu ahalko dira.

Ez dira kontuan izango eskabidean alegatu edo adierazi ez diren merezimenduak eta epaimahaiak emandako epean egiaztatu ez direnak. Epe hau oposizioan aurreikusitako azken probako behin-behineko emaitzekin batera argitara emango da web-orrian.

Eskabidean adierazitako merezimenduak egiaztatuko dituzten agiriak, merezimenduen fasean ebaluatuak izateko, jatorrizkoak edo fotokopiak izango dira.

Fase honetan, Epaimahai Kalifikatzaileak hurrengo merezimendu hauek ebaluatuko ditu baldin eta eskabidean adieraziak izan badira eta oinarri honetan jasotakoari jarraituz behar bezala akreditatuak izan badira, betiere eskabideak aurkezteko epea amaitzen den eguna erreferentziatzat hartuz.

Honako hauek dira baloratuko diren merezimenduak:

* B gida baimena izateagatik: 10 puntu.

* Lan-esperientziari dagokionean baloratuko direnak dira inoren kontura edo funtzionario gisa egindako lana eta gehienez ere 20 puntu arte:

— Bete behar den lanpostuaren eginkizunekin erlazionatuta egindako lana –hau da, brigada ezberdinak dituen obra eta zerbitzuetako teknikari, koordinatzaile edo obra buru gisa egindako lanak–: Gehienez ere 15 puntu arte, eta zerbitzuko egun bakoitzeko 0,008 puntu esleituz. Dedikazioa lanaldi osokoa ez bada izan, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

— Bete behar den lanpostuaren funtzio batzuekin lotutako egindako beste lana: Gehienez ere 7 puntu arte, eta zerbitzuko egun bakoitzeko 0,005 puntu esleituz. Dedikazioa lanaldi osokoa ez bada izan, dagokion hainbanaketa egingo da puntu-kopuruan.

Merezimendu horietarako aurkeztu behar diren egiaztagirietan betetako funtzio guztiak zehaztu beharko dira, eta eginkizu-

## AYUNTAMIENTO DE BERGARA

*Corrección de errores en las bases para la provisión en propiedad del puesto de trabajo de técnico/a de Obras y Servicios.*

El alcalde del ayuntamiento de Bergara mediante decreto de 12 de diciembre de 2024, ha acordado realizar una convocatoria para la provisión en propiedad, mediante sistema de concurso-oposición, del puesto de trabajo de técnico/a de Obras y Servicios y aprobar las bases que han de regir dicho proceso selectivo (número de expediente: 2024LAAU0024).

Las bases se publicaron en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 16 de enero de 2025 y habiéndose detectado errores en ellas, en la base novena, mediante la presente se corrigen pasando a redactarse de la siguiente forma dicha base novena:

Novena. Fase de méritos (concurso).

Aquellas personas aspirantes que hayan superado la fase de los exámenes (oposición) pasarán a la fase de méritos (concurso).

En la fase de concurso se podrá obtener en total un máximo de 30 puntos.

No serán valorados los méritos que no se hayan alegado o indicado en la instancia y no hayan sido acreditados en el plazo concedido por el tribunal. Este plazo será publicado en la página web junto con los resultados provisionales de la última prueba prevista en la oposición.

Los documentos que acrediten los méritos alegados en la instancia, para su valoración en la fase de méritos, serán originales o fotocopias.

En esta fase, el Tribunal Calificador valorará los méritos siguientes, siempre que hayan sido alegados en la instancia y debidamente acreditados conforme a lo recogido en la presente base, y con referencia siempre a la fecha de finalización del plazo de presentación de instancias.

Serán valorados los siguientes méritos:

* Estar en posesión del permiso de conducción tipo B: 10 puntos.

* En cuanto a la experiencia laboral, se valorará el trabajo realizado por cuenta ajena o como funcionario/a y hasta un máximo de 20 puntos:

— El trabajo realizado relacionado con las funciones del puesto a cubrir –es decir, como técnico/a, coordinador/a o jefe/a de obra en Obras y Servicios que dispongan de varias brigadas– hasta un máximo de 15 puntos. asignándose 0,008 puntos por día de servicio. En caso de que la dedicación no haya sido de jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

— Haber desempeñado otros trabajos relacionados con algunas de las funciones del puesto a cubrir: hasta un máximo de 7 puntos, asignándose 0,005 puntos por día de servicio. En caso de que la dedicación no haya sido de jornada completa, se procederá a realizar el correspondiente prorrateo en la puntuación.

En los certificados acreditativos que se han de presentar para dichos méritos, deberán especificarse todas las funciones

EK\CV GAO-I-2025-00762

nen artean jasotako gehienak kontuan izanda, epaimahaiak erabaki ahal izango du nola baloratu.

Enpresa edo Administrazioko eta lanpostuko gutxienez sei (6) hilabeteko lan-esperientzia izan beharko du baloratua izateko.

Egindako zerbitzuen akreditaziorako:

a) Administrazio publikoetan egindako zerbitzuak zerbitzuok bete diren administrazioko organo eskumendunak emandako agirien bidez akreditatuko dira, eta ziurtagiri/egiaztagiri horietan zehaztuko dira enplegu-harremanaren iraupena, dedikazioaren portzentajea eta betetako lanpostuaren funtzioak eta egitekoak.

b) Bergarako Udalean egindako zerbitzuak, alegatu bai, baina ez dira egiaztagirien bidez ziurtatu behar; izan ere izangaien espediente pertsonaletan jasotako datuen arabera baloratuko dira.

c) Enpresa pribatuan inoren kontura egindako lana egiaztatzeko, enpresa-egiaztagiriak eta lan-kontratuak aurkeztu beharko dira, eta Gizarte Segurantzak emandako laneko bizitzaren agiriarekin batera aurkeztuko dira. Egiaztagirietan, betetako funtzioak zehaztu beharko dira eta gizarte segurantzako 1 edo 2 kotizazio taldeetan (goi mailako edo erdi mailako titulazioa) kotizatu izan beharko du.

Halaber, eta aurreko atal horietako (a, b eta c) lan-esperientzia baloratzeari begira, ondoren adierazita datozen egoeren artean egon izan bada, eskaera-orrian adierazi beharko du zenbat denbora egon den hautagaia egoera horretan, zinpeko aitorpenaren balioa izango duelarik:

— Senideak zaintzeagatik edo genero-indarkeriagatik eszedentzia(k).

— Amatasuna eta aitatasuna babesteko edo bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzeko lanaldi-murrizketetan edo baimen egoera(k).

— Genero-indarkeriagatik baimena(k).

Egoera hauetan egon izan den denbora zerbitzu aktiboan egon izan dela ulertuko da.

Formazio osagarriari dagokionean:

Lanpostuaren eginkizun eta ardurei aurre egiteko lagungarri dela ulertzen den formazio osagarria baloratuko da, gehienez ere 10 puntu arte.

Ebaluazioan bakarrik hartuko dira kontuan zentro ofizialek antolatutako formazio ikastaroak.

Horretarako, honako hauek hartuko dira zentro ofizialtzat: unibertsitateak, elkargoak, jabetza eta merkataritza ganberak, Herri administrazioko eskolak (IVAP, INAP, IEAP edo herri administrazioetako beste eskola batzuk), Hezkuntza Ministerioaren edo autonomia erkidegoetako hezkuntza sailen mendeko prestakuntza zentroak, INEM Enpleguko Institutu Nazionala, eta berezko nortasun juridikoa duen beste edozein zentro, baldin eta ikastarora joan eta horretan parte hartu izanaren agiria erakunde horiek emana bada.

Ez dira baloratuko akademia pribatuek emandako ikastaroak, ezta fakultateko edo eskolako ikasketa-plan ofizialetako ikasgaiei buruzkoak ere.

Bestalde eta era berean, agirietan bakoitzaren gaitegia edo edukia zehaztuta eta formazio-ekintzen iraupena ordutan jasota izan beharko dute baloratuak izateko.

Ikastaro edo formazio-ekintza bakoitzak gutxienez 10 orduko iraupena izango du baloratua izateko eta orduko 0,10 puntu emango zaio.

que se han desempeñado, quedando a criterio del Tribunal el modo de valorarlos teniendo en cuenta la mayoría de las funciones recogidas.

Para ser valorado deberá contar con una experiencia laboral mínima de seis (6) meses por empresa o Administración y puesto de trabajo.

Acreditación de los servicios prestados:

a) Los servicios prestados en las administraciones públicas deberán ser acreditados mediante certificaciones expedidas por el órgano competente para ello en la administración donde se han prestados dichos servicios, especificándose la duración de la relación de empleo, el porcentaje de dedicación y las funciones del puesto desempeñado.

b) Los servicios prestados en el Ayuntamiento de Bergara deberán ser alegados, pero no deberán ser acreditados documentalmente, ya que se valorarán de acuerdo con los datos obrantes en los expedientes personales de las personas aspirantes.

c) Para acreditar la experiencia laboral por cuenta ajena en el ámbito privado, deberá presentar los certificados de la empresa y los contratos laborales, además del documento de «Vida Laboral» expedido por la Seguridad Social. En los documentos acreditativos deberán constar las funciones que se han desempeñado y haber cotizado en el grupo de cotización 1 o 2 (titulación superior o media) de la Seguridad Social.

Asimismo, y a efectos de la valoración de la experiencia laboral de los apartados anteriores (a, b y c), en caso de que la persona aspirante hubiera estado incluida entre las situaciones que se indican a continuación, deberá indicar en la instancia el tiempo en que ha permanecido en dicha situación, con valor de declaración jurada:

— Excedencia(s) por cuidado de familiares o por violencia de género.

— Reducciones de jornada o situaciones de permiso para la protección de la maternidad y paternidad o para la conciliación corresponsable de la vida personal, familiar y laboral.

— Permiso(s) por violencia de género.

El tiempo de permanencia en estas situaciones se considerará que ha estado en situación de servicio activo.

En cuanto a la formación complementaria:

Se valorará, hasta un máximo de 10 puntos, la formación complementaria que se entienda como valiosa para el ejercicio de las funciones y responsabilidades inherentes al puesto.

Únicamente serán objeto de valoración los cursos de formación organizados por Centros Oficiales.

A estos efectos se entenderá por Centros Oficiales: las Universidades, los Colegios Profesionales, Cámaras de la Propiedad y de Comercio, Escuelas de Administración Pública (IVAP, INAP, IEAP u otras Escuelas de Administración Pública), los Centros de formación dependientes del Ministerio de Educación o Departamentos de Educación de las Comunidades Autónomas, el INEM, y cualquier otro centro con personalidad jurídica pública, siempre que el certificado de asistencia o de impartición estuviera expedido por los mismos.

No se valorarán los cursos impartidos por academias privadas, ni los correspondientes a materias de los planes oficiales de estudios de la facultad o escuela.

Asimismo, para ser valorados los documentos deberán contener el temario o contenido de cada uno de ellos y la duración de las acciones formativas en horas.

Para ser valorado, cada curso o acción formativa deberá tener una duración mínima de 10 horas, otorgando 0,10 puntos por hora.

EK\CV GAO-I-2025-00762

Horren guztiaren eraginetarako baloratuko direnak hauek izango dira:

— Laneko Arriskuen Prebentzioaren arloko formazioa izatea, lanpostuaren eginkizunen arloko arriskuekin zerikusia izango balu. eta betiere enpresa homologatuek emandakoak izan balira. Atal honetan gehienez ere 3 puntu arte emango dira eta ekintzako gehienez ere 1,5 puntu.

— Laneko Arriskuen Prebentzioan: Laneko Arriskuen Prebentzioko goi-mailako teknikaria izateko dagokion Masterra izatea: 4 punturekin baloratuko da,

— Talde-laneko dinamikak sortzeko eta motibaziorako prestakuntza izatea, gehienez ere 3 puntura arte eta ekintzako gehienez ere 1,5 puntu.

— Lanpostuaren ardurekin zerikusia izan dezakeen beste formazioa: gehienez ere 9 puntura arte eta ekintzako gehienez ere 3 puntu.

Ikastaro bat eskaera-orrian alegatu edo aipatu bada, baina agiriak aurkezteko emandako epean aurkeztu diren agirietan ikastaro horren informazioa jaso ez bada, ikastaro hori ez da kontuan izango.

Halaber, sor daitezkeen zalantzak edo aurreikusita ez dauden kontuak ebazteko ahalmena epaimahaiaren esku egongo da.

— Ebazpenaren aurkako bideak.

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpen hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egokitzat jotzen den beste edozein errekurtso ere jar daiteke.

*Lege-oinarria:* Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2025eko urtarrilaren 27a.—Behin-behineko idazkaria. (762)

A todos estos efectos se valorará:

— Contar con formación en materia de Prevención de Riesgos Laborales relacionada con los riesgos propios de las funciones del puesto de trabajo, siempre que haya sido impartida por empresas homologadas. En este apartado se otorgarán hasta un máximo de 3 puntos, con un máximo de 1,5 puntos por acción.

— En Prevención de Riesgos Laborales: Estar en posesión del Máster que habilita para ser técnico/a superior en Prevención de Riesgos Laborales se valorará con 4 puntos.

— Contar con formación en generación de dinámicas de trabajo en grupo y motivación, hasta un máximo de 3 puntos, con un máximo de 1,5 puntos por cada acción formativa.

— Otra formación relacionada con las responsabilidades del puesto de trabajo: hasta un máximo de 9 puntos, con un máximo de 3 puntos por acción.

Si un curso ha sido alegado o mencionado en la solicitud, pero no consta entre la documentación aportada en el plazo concedido para la presentación de la documentación, no se tendrá en cuenta dicho curso.

Asimismo, la facultad de resolver las dudas que puedan surgir o cuestiones no previstas corresponderá al tribunal.

— Recursos contra la resolución:

Contra la presente resolución, y que es definitiva en vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

No obstante, con carácter potestativo y previo al recurso contencioso-administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución que se notifica se podrá interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que lo dictó, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de publicación de esta notificación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Todo ello sin perjuicio de que se pueda ejercitar cualquier otro recurso que se estime procedente.

*Fundamentos jurídicos:* Todo ello conforme a lo dispuesto en los artículos 114.c, 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, el artículo 8 de la Ley 29/1998 de 13 de julio reguladora de la Jurisdicción Contencioso Administrativa según redacción dada por la Ley Orgánica 19/2003, de 23 de diciembre y el art. 46 de la misma Ley así como el artículo 5 del Código Civil.

Bergara, a 27 de enero de 2025.—La secretaria accidental. (762)

EK\CV GAO-I-2025-00762